



Lehiaren
Euskal Agintaritzak

Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA OHARRA

Lehiaren Euskal Agintaritzak Gipuzkoako bidaiarien garraioan ari zen autobusen sektoreko kartel bat deuseztatzen du

Gipuzkoako Bidaiarien Garraioaren espediente zehatzailearen ebazpena (130-SAN-2016 zenbakia) Lehiaren Euskal Agintaritzaren Kontseiluak (LEA/AVC) bere abenduaren 27ko batzarrean onartua, ontzat ematen du Gipuzkoan gutxienez 1.988tik zebilen enpresen eta elkarte profesional baten kartelak, prezioak ebatzi eta ibilbideak banatzen zituela. Praktika hauek eskaintzen zuten zerbitzuen garestitzea suposatu dute, honek erabiltzaileengan duen kaltearekin eta beste enpresa batzuen merkaturatzearen ixtearekin. Hori dela eta, LEA/AVCk zehapenak ezarri dizkie 17 enpresa eta elkarteari miloi bat euro ingurura altxatzen delarik zenbatekoa.

Bilbao, 2017ko abenduaren 29a.

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) egindako ikerketak egiaztatu ahal izan du AVITRANSen barruan, Gipuzkoako Bidaiarien Hiriarteko Garraio Enpresa Elkarteak, zerbitzuen prezioak hitzartu eta ibilbideak banatu zirela, hitzarmen hau betetzen ez zuten enpresa errebeldeei boikota eginez gainera.

Zehatutako enpresak egindako eta azaldutako jarraibideak, errepideko bidaiarien garraioaren merkatuko segmentu desberdinei eragiten die, bai lizitazio publikoetan eta bai talde pribatuetan ere, plan bakarra eta patroia bera jarraitzen dutenak, non helburua salneurrien zehazpena eta jarduten zuten merkatuko garraio zerbitzuen banaketa zen. Denboraldian zehar AVITRANS-ek egindako paperak sistemaren babesle eta bermatzaile bezala eta aplikazio geografiko eremuak, baieztatu egiten du ekintza honen batasuna.

Zehatutako operadore ekonomikoen zerrenda zehaztua, eta Lehiaren Euskal Agintaritzaren Kontseiluak (LEA/AVC) ezarritako zehapenen zenbatekoa hurrengo da:

ENTIDAD	SANCIÓN (€)
AVITRANS	20.000,00
AUTOCARES AIZPURUA, S.L.	127.332,55
ALUSTIZA BIDAIAK, S.L.	23.902,85
ARTEONDO AUTOBUSAK, S.L.	20.062,80
AUTOBUSES URBANOS IRUN FUENTERRABIA, S.L.	75.846,37
AUTOBUSES GARAYAR, S.A.	47.940,27
ESCUDERO HERMANOS, S.L.	5.446,74
AUTOCARES IPARRAGUIRRE, S.L.	49.281,51
BENGOETXEA AUTOBUSAK, S.A.	19.396,93



AUTOCARES DIEZ, S.L.	44.941,56
GOIERRI BUS, S.L.	41.435,77
GOIERRIALDEA, S.L.	53.394,95
GURE BUS, S.A.L.	20.472,54
J. APAOLAZA AUTOBUSAK, S.L.	14.469,24
TRANSPORTES PESA, S.A.	277.800,00
TOLOSALDEA BUS, S.L.	77.071,59
UNITRAVEL, S.L.	3.125,79
AUTOCARES URPA, S.L.	9.572,99

Kronologia

Gipuzkoako Bidaiarien Garraioa-ren (130-SAN-2016) zehapen-txostenean oinarritzen den ikerketa 2015eko maiatzean hasten da, LEA/AVC-ak errepideko bidaiarien garraio merkatuan gertatutako arau-hauste posible baten ezaguera izan ostean, nagusiki Gipuzkoan. Informazioaren azterketa zehaztua lehiaren falta adierazgarria zen, hau dela eta epaitegiak ikuskapen agindu desberdinak eman zituen, hauek enpresetara eta elkartera sartzea ahalbideratu zuten, eta gutxienez, 1988tik 2015era eman zen arau-hauste etengabekoaren, existentzia egiaztatzen duten probak eskuratu.

LEA/AVCren Kontseiluak abenduaren 27ko Ebazpen Zehatzailea igorri du, administrazio bideari bukaera ematen diona, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean errekutsoa aurkeztu ahal daitekeena bi hilabetetako epearen barruan.

Kartelen aurkako borroka

Lehiaren Euskal Agintaritzariak lehentasunezkoa ikusten du kartelenganako borroka kontsumitzaileengan, enpresengan, baita Administrazio Publikoarengan ere egiten duten minagatik. Lehiaren Euskal Agintaritzariak (LEA/AVC) Errukitasun Programa du, lehiaren aurkako praktika hauek detektatzeko erraminta gisa eta hauen desegitea ahalbidetzen duena ekonomian eragiten dituzten ondorio larriak direla eta. Programa hau, kartel batetan parte hartutako persona eta enpresentzat irtenbidea izan daiteke. Izan ere, betekizun batzuk betetzekotan, debekatutako akordioan parte hartzegatik ezarri beharreko isunaren ordainketatik salbuetsiko lituzkete agintaritzek (edo isunaren zenbatekoa murriztuko liekete). Halaber, urratze honen inguruan ezagutza duen edozein operadore edo pertsona fisikok LEA/AVC web orrialdean informazioa eskaini dezake. ([Lehiaren Euskal Agintaritzza](#))

[Ebazpenaren esteka](#)